

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta BALTISTAN Fundazioak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute

2015/02/03

Felix Baltistán Fundazioak Hushé Bailarako neskatuak eskolatzeko proiektua sustatzen du, besteak beste. Hushé Bailara Pakistango goimendietako eskualdea da, eta zaila eta arriskutsua da bertan eskolara joatea, are gehiago neskatuak izanez gero.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK 6.300 euro emango dizkio Baltistán Fundazioari orain hasi eta uztaile arte luzatuko den hezkuntza-proiektu hori abian jartzeko. Haren bidez, 100 beka banatuko dira eskualdeko beste horrenbeste neskatu zortzi eskolara joateko

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK euskal gizarte osoari Fundazioaren lanaren berri eman nahi dio eta, horretarako, argazkiak erabiliko ditu. Horiek edonork igo ahal izango ditu Instagramera. Baldintza bakarra unibertsitatearen logoa ikustea izango da

Asmoa zera da: guztira 8.035 argazki biltzea, zortzi mila metroko mendia irudikatzeko. Bildutako 1.000 argazkiko, unibertsitateak 12 beka lagunduko ditu diruz, eta "kanpaleku batera" iristen den bakoitzean, gainera, eskola bat finantzatuko da

Gailurra igotzean, hau da, partaideek 8.035 argazki bidaltzen dituztenean, 16 beka gehiago egongo dira ikasleentzat, eta bi irakasle prestatzeko beste bi beka ere bai

Prentsa ohar osoa irakurri

Erronka-ko oinarriak, argazkiak eta egungo egoera

